

BALIOESPENA RAJOYREN 2012KO AURREKONTUEI BURUZ

ELA, 2012ko apirilaren 4a.



BALIOESPENA, RAJOYREN 2012KO AURREKONTUEI BURUZ

ELA, 2012ko apirilaren 4a.

Espainiako Gobernuak joan den ostiralean, martxoak 30, onetsi ditu 2012ko aurrekontuen egitasmoa (horri buruzko zenbait datu baino ez dira oraindik jakitera eman) eta Zerga Neurrien Errege Lege Dekretua (martxoaren 31ko BOEn argitaratua). Halaber, argindarraren eta gasaren prezioak igotzea onetsi du, eta tasa judizialak ere (lan-arlokoak barne) igoko direla iragarri du.

0- SARRERA: AURREKONTUAREN ESPARRUA

Aurrekontuen esparrua erabaki politiko batek finkatu du, alegia, estatu espainoleko administrazioen defizit publikoa murriztu nahi duen erabaki politikoak, 2012an BPGaren %8'5etik %5'3ra jaisteko asmoa duena. Zapateroren gobernuak urratu zuen ildo beretik jarraitzen dugu. Gobernu horrek defizit publikoa, 2013rako, BPGaren %3ra jaistea itundu baitzuen Bruselarekin. Gogoratu beharrekoa da aurtengo ekainean 2013ko aurrekontuen izapideak hasi behar direla, beraz orain proposatu diren doikuntzez gain datorren urtekoak ere gehitu beharko direla.

2012ko defizitaren murrizketa nola banatuko den administrazioen artean Zerga eta Finantza Politikaren Kontseiluak erabaki du. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak oniritzieraien 2012ko aurrekontuak egiterako orduan beraien oneritzia eman zieten zifra hauei. Zehazkiago esanda:

- Gobernu espainolak BPGaren %1,6 murriztu behar du bere defizita (2011ko BPGaren %5,1etik 2012ko %3,5era).
- Autonomia-erkidegoek BPGaren %1,4 jaitsi behar dute beren defizita (2011ko %2,9tik 2012ko %1,5era).
- Toki-korporazioek (foru-aldundiak eta udalak) BPGaren %0,4tik %0,3ra murriztu behar dute beren defizita.
- Gizarte Segurantzaren defizita 2011ko %0,1etik 2012ko %0ra jaitsi behar da.

Defizita BPGaren %1,6 murrizte aldera, Gobernu espainolak kontuan hartu du zenbait gastu haziko direla, besteak beste, zorraren interesak (1.448 milioi gehiago. Aurten 28.848 milioi bideratuko ditu gobernuak). Horrelako gastuak BPGaren %0,9 igoko direla jotzen dute. Hori horrela, Rajoyren Gobernuak 2012ko aurrekontuan egin asmo duen "doikuntza" 27.300 milioi eurokoa da, diru-sail guztien artean banatzekoa.

I – ESPAINIAKO GOBERNUAREN 2012KO NEURRIAK

Diru-sarreraren neurriak

Rajoyk 2011ko abenduaren 30ean onetsitako Errege Lege Dekretuan PFEZ tasak igotzea zekarren, horren bidez 4.100 milioi euro biltzea espero dute.

Martxoaren 30eko Errege Lege Dekretuak hainbat neurri dakar. Hona hemen nabarienak:

- Sozietateen Zergaren igoera. Horren bidez 5.350 milioi euro biltzea espero dute. Sozietateen Zergaren kenkariak dezente mugatu dira, eta dibidenduak

sorterriratzearen gaineko %8ko zerga berezia ezarri da. Neurri horren bidez Sozietateen gaineko Zerga dela-eta egiten den diru-bilketa %32 igoko da, 2011koaren aldean (zerga horren presio fiskala BPGaren %1,5etik %2ra igaroko da).

- Amnistia fiskala. Ezkutuko errentak azaleratzea du helburu, %10 urri bat ordaintzearen trukean. Isilpean geratuko delako bermeak ematen dira. Gobernuaren aburuz, horrela 25.000 milioi euro azaleratuko dira, eta 2.500 milioi euro gehiago bildu ahal izango dira.

Beraz, Gobernuak neurri horien bidez biltzeko duen asmoa 11.950 milioi eurokoa da. Eta beste neurri fiskal batzuekin batera (tabakogintzaren ingurukoak, besteak beste), guztira 12.314 milioi euro bilduko duela dio.

Gastuaren neurriak

Gobernuko ministerioen gastuak murriztuko dira, 2011n 79.209 milioi euro izatetik 2012an 65.803 milioi izatera (%16,9ko murrizketa, edo 13.400 milioi €).

Defentsa eta Barne Ministerioen gastu-murrizketa batez bestekotik nabarmen beherakoa da (%8,8 eta %4,3, hurrenez hurren). Gauza bera gertatzen da Errege-etxearekin, esleitutako diru kopurua %2a bakarrik murriztu dute.


Murrizketarik deigarrienak hauexek dira:

- Langabezi prestazioak 1.669 milioi euro. Nahiz eta gobernuak onartu duen aurten langabetu kopuruak gora egingo duela, langabezi prestazioei zuzendutako baliabideak murriztu dituzte. Honek babes maila baxua dela adierazten du. Langabezian eta inolako estaldurarik gabe dagoen persona kopuruak goraka egin du nabarmen, eta babesaren duten langabetuen artean prestazio asistentziala dutenak gero eta gehiago dira, hauen diru kopurua prestazio kontributiboarena baino baxuagoak direlarik.
- 1.565 milioi enpleguaren politika aktiboetara dagozkien, formazioa (langabetuena eta okupatuena) edo kontratazioarako hobariak barne daudelarik.
- Sustapen Ministerioaren inbertsioetan eragina dutenak. Hainbat diru-sail murriztu dira, gutxienez 2.600 milioi eurotan.
- Garapenaren aldeko laguntza 1.300 milioi txikiagoa izango da (%72 gutxiagotzea).
- Etxebizitza erosteko laguntzetarako 322 milioi gutxiago.
- Hezkuntzaren transferentzietan 530 milioi euro murriztuko da.
- Menpekotasunaren diru-saila, 283 milioi eurokoa, ezabatuko da. Diru-sail horren zertarako azpiegiturak (adinekoen egoitzak) eta administrazio-zerbitzuak ziren.

Gogoan izan, gainera, abenduaren 30eko Errege Dekretuak administrazio guztietako langileen soldatak izoztu zituela, EPEak debekatu zituela, eta Estatuko Administrazio lanaldia 37½ ordu luza zuela. Aurrekontuek lanaldia 37 ordu eta erdira luzatzea jasotzen dute, oinarrizko izaeraz, administrazioaren zerbitzura dagoen langileria ososari eragiten diolarik, Erkidego Autonomoak eta herri erakundeak barne. Bertan

behera geratzen dira lanaldia eta ordutegiaren arautzea jasotzen duten akordio, pakto edo hitzarmenak. Hego Euskal Herriko erakundeek duten konpetentzie eraso zuzen bat da hau.

Neurri horiekin batera, gobernuak argindarra %7 igotzea ere onetsi zuen, apiriletik aurrera gauzatuko dena. Beraz, 2008az geroztik argindarraren igoera %37koa izan da, Europako batez bestekoaren oso gainetik (%12). Rajoyk onetsitako igoera areagotu egin du Europarekin genuen aldea, argindarraren prezioari dagokionez. Iaz megavatioaren prezioa 217,8 €koa zen, Europako batez bestekoa (194,5 €) baino %12 gorago.



Bestalde, gobernuak gasaren tarifa berriro igotzea onetsi du, oraingo honetan %5ekoa.

Orobat, lege-aldaketa bat iragarri dute, tasa judicialak ezartze aldera. Lan-arloko jurisdikzioari dagokionez, 500 €ko tasa ezarri nahi da erregutze-errekurtsoetan, eta 750 €koa kasazio-errekurtsoetan. Tasa horiek ez dira itzultzekoak izango.

TASAS JUDICIALES

	Actual euros	Propuesta euros	Incremento euros
CIVIL			
Verbal y cambiario	90	150	60
Ordinario	150	300	150
Monitorio y monitorio europeo y demanda incidental en el proceso concursal	50	100	50
Ejecución extrajudicial	150	200	50
Concurso necesario	150	200	50
Apelación	300	800	500
Casación y de infracción procesal	600	1200	600

CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO

Abreviado	120	200	80
Ordinario	210	350	140
Apelación	300	800	500
Casación	600	1200	600

SOCIAL

Ordinario y demás modalidades procesales	0	0	
Monitorio	0	0	
Suplicación	0	500	
Casación	0	750	

II- ELAREN BALIOESPENA

ELarentzat:

- Rajoyren gobernuak proposatzen dituen gastu-murrizketek ekonomiaren atzeraldia areagotuko dute, gizarte-babesa mugatu, eta langabezia ugaltu. Herritarrak pobretzea helburu duen politikari beste bultzada bat ematea da (zuzenean, administrazioaren zerbitzupeko langileen eta pentsiodunen eroste-ahalmena gutxituz, argindarraren eta gasaren prezioa igo baita; eta zeharka, gizarte-gastua gutxituz eta krisia larriagotuz). ELAk aurrekontu-politikak zeharo aldatzeko eskatzen du. Izan ere, ezin zaio lehentasuna eman defizit publikoa murrizteari, baldin eta biztanle gehienek lan-baldintzen eta bizimoduaren kaltetan badoa. Europako Batasuneko gobernuak hitzartu duten esparrua onartezina da, murrizketak egiteko aitzakia moduan erabiltzen baitute.
- Zor publikoaren interesak ordaintzeko murrizketa handiagoak eginez eta argindarra edo gasa igoz gizarte-politika negargarria egiten da, enpresa handiei eta bankari baino beste inori on egiten ez diona. Ezin da bestela izendatu gure sistema hau. 2011ko abenduaren eta 2012ko otsailaren bitartean Europako Banku Zentralak 230.000 milioi eurotik gora mailegatu die estatu espainoleko finantza-erakundeei %1eko interesean eta 3 urtera. Banku Zentralak ez die

dirurik mailegatzten gobernuei, eta bankuek Europako Banku Zentraletik datorren diru horretatik zati bat mailegatzten diete gobernuei interes altuagoan negozio ederra eginez (estatuko gobernuaren zor publikoaren batz besteko tipoa %4,1ekoa da). Horren ondorioz, doikuntzak gogorragoak izan behar dira.

- ELAk, gainera, uko egiten die administrazioetako langileen aurkako eraso berriei. Soldata-izozketa berriarekin eroste-ahalmenak %10 eta 13 bitarteko galera izan du azken urteotan. Lanaldia 37 ordu eta erdira luzatzea, lanpostu hutsak ez betetzea, eta EPERik ez antolatzea, enplegu publikoa suntsitzeko neurriak dira. Hori dela-eta, zerbitzu publikoen kalitatea lorrinduko da arian-arian. ELAk eskatzen die EAEko eta Nafarroako Administrazioei berezko dituzten eskumenei eusteko, eta lanaldia ez luzatzeko. Azpimarratu behar da 35 orduko lanaldia 1999an Nafarroako Legebiltzarrean eta EAEn 2000. urtean onetsi zela Eusko Legebiltzarrean, Gizarte Eskubideen Gutunaren Legeen bidez; eta legegintzako herri-ekimenen emaitza izan zela, 100.000tik gora sinadura batu ostean. Beraz, ELAk ez dio onartuko inongo administrazioi esatea neurri hori aplikatzera beharturik dagoela. Hego Euskal Herriko sektore publikoan 35 orduko lanaldia aplikatzen jarraitzeko badago arrazoi nahikorik, bai eskumen, bai politika, bai gizartearen arloetatik.
- Sozietateen gaineko Zerga igotzea partzialki txalogarria da. Aski ezaguna da badaudela kenkari eta hobari ugari, eta enpresek sozietateen zergaren bidez etekinen gainean benetan ordaintzen duten portzentajea oso txikia dela. Egia da, halaber, azken urteotan zergaren tasa nominala jaitsi izan dela, eta hori ez dela erreformaz aldatu. Zergaren igoera ez da aplikagarria EAEn eta Nafarroan. Beste behin, 2011n PFEZarekin gertatu zen bezala, Rajoyk agerian utzi ditu hiru foru-aldundiak eta hiru biltzar nagusiak, hala nola Nafarroako Gobernua eta Parlamentua. Politika fiskala zeharo aldatu behar da, sozietateen zerga nabarmen igoz. Dena dela, deitoragarria da Rajoyk gehiago egitea arlo horretan, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako eskudun erakundeek baino.
- Politika fiskalaren barruan zerga-iruzurrari aurka egin behar zaio, orain arte egin ez den bezala. Alde horretatik, gobernu espainolak onetsitako amnistia fiskala egin behar denaren kontrakoa da. Ezkutuko kapitalak %10 ordainduz zuritu ahal izateak argiro erakusten digu zenbatekoa den iruzurrari aurka egiteko borondate politikoa. Neurri horren jasotzaileak, gainera, iruzurgilerik handienak dira, zeinekin bereziki gogor jokatu behar baitzen. Ez da zaila asmatzea ez dela lortuko neurri horretatik espero den diru-bilketa. Ogasunaren atzaparra atzetik sentitzen dutenak baino ez dira neurri horretaz baliatuko (bakan batzuk), baina gainerakoek berdin-berdin jarraituko dute. Amnistia fiskalaren mezua iruzurra egiten jarraitzeko gonbidapena da.
- ELAk mobilizazio sindikala bultzatuko du, iragarritako murrizketei aurre egiteko; eta Hego Euskal Herriko administrazioei eskatuko die politika fiskalak eta aurrekontukoak goitik behera aldatzeko, enplegua behar bezala sustatzearren, eta goraka doazen gizarte-beharrizanak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurumena...) betetzearren. Politiken norabidea aldatzeko beharra gero eta premiazkoagoa da. Politikak aldatu ezean, politika antisozialak eta murrizketak aplikatuz jarraitzea da. Beraz, ELAk dei egiten die Nafarroako eta EAEko erakundeei murrizte-politikarik ez aplikatzeko.